

## ***“Erresuma ez da erregearena, komunitatearena baizik”***

(Martin Azpilcueta, “Doctor navarrus”, 1528)

### **Zuzendariak, enpresa eta gizartea**

Martin Azpilcueta baztandar apaiz, teologo eta juriskontsultoa, Fray Bartolome de Carranzaren abokatu defendatzailea izateaz gain, erantzun doktrinala eman zien “errentei eta etekinei” buruzko galdera ugari, eta botere politiko ororen jatorri demokratikoaren defendatzaile irmoa izan zen, demokratizaziorantzko bidea planteatuz.

Azpilcuetaren aipua enpresarien eta zuzendarien funtzioari eta erantzukizunari buruzko hausnarketara eraman gaitzake, baita enpresaren eta gizartearen arteko harremani buruzkora ere.

Zalantzarik gabe, 2008ko krisi ekonomiko, sozial eta politikoak ekonomiaren ikuspegi neoliberala asalatu zuen. Euroa iparraldeko herrialdeek ezarritako austeritate politika ekonomikoak sakondu egin zuen herrialdeen arteko desberdintasunetan, eta pobrezian murgildu zituen giza talde handiak, eta lehen aldiz langile-txiroak agertu ziren, lanpostu bat zutenak, baina gutxieneko bizi maila onargarrietara iritsi ezin zirenak.

4,5 milioi lagun pobrezia larrian bizi dira Espainian, eta 120.000 lagun Euskal Autonomia Erkidegoan. COVID-19aren krisiak, langabeen gorakadarekin, langileen prekarizazio handiagorekin, pobrezia energetikoarekin, haurren pobrezia igoerarekin, eragin larria izan du etxe gehienetan.

Desberdintasunek handitzen jarraitzen dute. Krisi honen aurrean, milioi erdi bat euskal herritar inguru pobrezia larriaren arriskuan daude edo dagoeneko biztanleria horren parte dira.

Ezin dugu beste alde batera begiratu. Enpresa pribatu kapitalistaren paradigma ez da onargarria, Marco Polotik Bill Gatesera, bere akziodunen ongizatea eta aberastasuna bilatzen baititu, zeharkako kalte gehiago eragiten jarraitzen duen bitartean: desberdintasuna, pobrezia, finantza espekulazioa...

Enpresa ez da enpresaburuen edo zuzendarien bizi eremua. Protagonista askoren bizi eremua da: langileak, bezeroak, hornitzaileak, zuzendariak eta akziodunak. Denak dira “norbaitek”. Bizitza propioa duen espazio komun bat da.

Gaur egun enpresa eremuan entzuten ditugun lankidetzak, elkartasun eta gizarte erantzukizuneko diskurtsoak ez dira egokitzapen koiunturaletatik haratago joaten.

Arizmendiarrietak enpresa paradigma berriaren helburua identifikatzen digu:

**“Enpresa benetako lan komunitate gisa ulertzen eta administratzen denean, dagokion elkartasunarekin, lana onargarri bihurtzen da, nekagarriena eta gogaikarriena ez baita lan egitea, besteren onurarako egitea baizik”** (Cooperacion, 1961eko maiatza)

Eta justu urtebete geroago, duela 59 urte, hau idatzi zuen:

**“Enpresak, benetan gizakien komunitatea denean, abantailak besterik ez du guztientzat. Horregatik uste dugu, zuhurtzia, lankidetzak eta elkartasuna kolektiboki gailentzen diren errealitate baterantz goazen heinean, jasanezintzat jo behar ditugula beste enpresa egitura batzuk, izan ere, gutxieneko duintasuna eta sentsibilitate soziala duten gizakien iritziz, ez datoz bat gaur egungo ongizate edo aurrerabide sozialaren kontzeptuarekin, are gutxiago lanaren edo kapitalaren kontzeptu kristauarekin”** (Cooperacion, 1962ko maiatza)

Haren jarrera zalantzarik gabea da, eta enpresen kudeaketan erantzukizunen bat beren gain hartzen dutenentzako bidea markatzen du:

**“Sustatzaileek, enpresariak, buruzagien klaseak, beren zeregina behar bezain zintzo betetzeko, erabili dezaketan eta erabili behar duten palankarik indartsuena beren eragin moralak da, eta horren euskarrietako bat da elkartasun sentimendua, besteei ematen dieten konfiantza, beren jardueraren efikazia** (Cooperacion, 1964ko ekaina)

Enpresako protagonista guztien adostasuna duen enpresa kultura baterantz jo behar dugu, eta gizarteko kide guztien behar indibidualak eta kolektiboak asetzera bideratu.

Argi dago herritar bakoitzak, langileak, zuzendariak edo akziodunek, modu berean finkatzen ditugula gure helburuak, baina sortu dugun egoera negargarria hor dago. Balioen ordena bat, askatasuna eta erantzukizuna behar ditugu, guztiontzat eta bakoitzarentzat baliagarriak. Elkartasunaz ari gara, erresilientziaz...

Arizmendiarrietak proposatzen digun eredua argia da:

**“Gizarte aberatsak nahi ditugu, ez pertsona aberatsak”**